

ENPRESA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Enpresa sortzeko informazioa eta aholkularitza

Kultura ekintzailea sustatzen

Enpresei zerbitzuak • Enpresagune



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Enpresa Sustapeneko Zerbitzuaren helburua eskualdean ekintzailetasuna eta autoenplegua bultzatzea eta gure enpresa sarea sendotzea da. Euskal Herrian, 10 langiletik beherako enpresa txikiak egitura ekonomikoaren %90a dira, eta horien %50 bazkide bakarrek edo bik osatutako enpresa txikiak dira. Horregatik, garrantzitsua da gurea bezalako erakunde publikoek autoenplegua bultzatzea, ekintzailetasuna sustatzea eta enpresa berriak sortzeko bidea erraztea.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



Europako Gizarte Fundoa
Fondo Social Europeo



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




INSTITUTO DE EMPLEO
SERVICIO PÚBLICO
DE EMPLEO ESTATAL

ENPRESA SORTZEKO INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA



Enpresa sortuko duen pertsonak gauza asko hartu behar ditu kontuan bere enpresa sendotu eta arrakasta lortzeko. Horretarako, Enpresa Sustapeneko Zerbitzuak honako zerbitzuak eskaintzen dizkizu:

- **Aholkularitza eta informazioa:** sektoreari buruzko informazioa, forma juridiko aproposena, zerga eta lan arloa, baimenak...
- **Bideragarritasun plana:** negozioaren bidegarritasuna aztertzen lagunduko dizugu.
- **Enpresa martxan jartzeko laguntza:** ogasuna, bankeixeak, gizarte segurantzak... Harremanak erraztu eta laguntza emango dizugu.
- **Dirulaguntzak:** zure egitasmoari ondoen egokitzen zaizkion dirulaguntza deialdiak bilatu eta eskabideak egiteko laguntza.
- **Prestakuntza:** enpresa kudeatzen laguntzeko ikastaroak (aurrez aurre eta on-line).
- **Finantzaketa iturriak bilatzeko laguntza:** egitasmoari ondoen egokitzen zaizkion finantzaketa iturriak bilatzeko laguntza.



KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEN

Autoenplegua besteren kontura aritzea bezain baliagarria izan arren, laneratzeko azken aukera gisa hartu ohi dugu. Beharrezkoa da ekintzailetasuna eta autoenplegua gure gizartean balore positibo bezala baneratzeko, eskualde dinamiko eta ekintzaile bat izan dezagun.

Horregatik, ekintzailetasuna sustatzeko ekimenak bideratzen ditugu herritar eta ikasle gazteentzat (ikastetxeekin elkarlanean).

- Autoenpleguari buruzko hitzaldiak.
- Ikastetxeetako gazteekin jolasak.
- Ikasleekin bideragarritasun planak lantzeko saiokak.
- Enpresa ideien lehiaketa.

ENPRESEI ZERBITZUAK



Enpresa sortu ondoko lehen pausoak ez dira errazak izaten.

Enpresak bere lekua bilatu eta egin behar du merkatuan, sendotzeko eta lehiakortasuna bermatzeko. Hori dela eta, enpresa kudeatzeko laguntza eskaintzen dizugu:

- Enpresa kudeatzeko informazioa eta aholkularitza.
- Enpresaren egoerari buruzko diagnostikoa.
- Finantzaketa iturri berrien bilaketa.
- Informazioa zerga eta lan arloan.
- Laguntzen kudeaketa.
- ...



ENPRESAGUNE enpresa haztegia

Urola Kostako Udal Elkarteak lokalak edo moduluak eskaintzen ditu merkatu librean baino alokairu baxuagoan. Urola Kostan lanean ari diren edo abian jarriko diren zerbitzu enpresei zuzenduta daude.

Argibideak eta oinarriak:
943 89 08 08

ENPRESAGUNE

- Zarautzen, Udal Elkartearen egoitzan (Urdaneta bidea 6)
- 4 lokal: 2 lokal 24m²-koak beste 2 lokal 16m²-koak.
- Bere sarrerarekin.
- Komunak.
- Elbarrientzako komunak.

